

EUKARISTIA, KRISTOREN PAZKOAREN SAKRAMENTUA

1. Eukaristiaren iraspenera Alkartasun Barrian lau lekutan edesten da: Mt 26, 26-29, Mk 14, 22-25, 1Kor 11, 23-26. Joanen ebanjelioa be aipatu daiteke, edo gogoratu bear dogu: ez ditu iraspenaren berbak eta egiteak edesten, baiña, 6garren atalean biziaren ogiari buruzko itzaldia aurkezten deusku, eta, 13garren atalean, azken afarian, oiñak garbitzea eta agindu barria jarten ditu. Badira Alkartasun Barrian eukaristia ikutzen daben beste testo batzuk.

1Kor 10, 16 testoa (55garren urtearen ingurukoa), Paulok “zatitzen dogun ogiaz” eta “bedeinkatzen dogun bedeinkapeneren kalizaz” dagi. 1Kor 11,20 testoa, ospakizunari “Jaunaren afaria” deitzen deutso. Apostoluen Egiñetan eukaristia “ogia zatitzea” izenez aipatzen da (2, 42.46). Paulok “Jaunaren maaia” izena be emoten deutso (1Kor 10,22). Leenengo mendean eukaristiak geien bat “ogia zatitzea” izena artu eban aurki. Mendearen azkenerantza eta bigarren mendearen asikeran agiri da “eukaristia” izena: eskerrak emotea esan nai dau, eta, azken baten, “bedeinkapen” (Pauloren “bedeinkapen-kaliza”) eta “goralpen” itzakaz bat dator edo bardin esan nai dau. Bardintasun au dala ta, ikus, esate baterako, Mt 11,25; Lk 10,21; Jn 11,41; Errm 1,8; 7,25.

Beste izen batzuk be erabilli izan dira istorian zear: “sagrifizioa”, “synaxis” (batzarra), “misterioa”, “dominicum”, “liturgia”, meza (latiñezko “missa”, bearbada agurtuz bialtzea esan nai